

[EUSKALERRIKO]

Euskalerriko
mahasti-zaleei bai
kantatzen diet.
Mahats-ondoak
landatzen
dituzte

erripan,
egutera.

Erripan,
mahats-parralak
jasotzen dituzte,
ta, haietan kateatu
mahats-ondoan aihenak
altu,
ez ditzan hondatu
lurreko lurrinak.

Mahats-egurrak sartu

–makurtu–,

pertikak gurutzatu

–urratu–;

mahats-ondoak atxurtu

–makurtu–;

mahats-ondoak sulfatatu

zutitu–;

[behin eta hiru aldiz atxurtu

–makurtu–

behin eta hiru aldiz sulfatatu

–zutitu–]

parralak zutik zaitu...
neke-egurrak hartu,
neke
ez kontatu
asko altxatu,
mahats-ondorik lurrinak
ez dezan gorrindu,
berindu,
galdu.

Euskalherriko
mahats-zaleei bai
kantatzen diet.
Herriko ardoa
ontzen baidute
neke
askoren truke;
merke
asko saltzeko
bada
ere.